



PRESIDENTEAREN DIOSALA

Lagun agurgarriak:

Pozarren aurkezten dizuet hiru hilez behin argitaratuko dugun InfoEG aldizkaria, Euskal Gorrakeko jarduera orokorraren berri izan dezazuen. Jaio berri den argitalpen hau, Fernando Pascual Amorrortuk, lehengo FASEko –Euskal Herriko Gorren Elkarten Federazioa-fundatzaileak eta Euskal Gorrakeko Ohorezko Presidenteak, Eco Silencioso aldizkariaren hainbat zenbaki argitaratzearekin batera hasitako ekimena berreskuratzeraz dator.

Garai hartan bera izan zen modu boluntarioan aldizkariaren edukiak idatzi zituena, baina bere agintaldia amaitzearekin batera proiektu hura ere bertan behera geratu zen, inork ez baitzion jarraipenik eman.

Hartara, Info EG aldizkariaren helburua Federazioak Pertsona Gorren kolektiboaren alde gizarte zein politika eremuan eginiko lana bistaratzea da.

Hortaz, Euskal Gorrakek Herri Administrazioekin, alderdi politikoekin zein bestelako eragile sozialekin izandako bilera eta harremanen gaineko albisteen laburpena aurkituko duzue.

Era berean, parte hartu dugun foro eta ekitaldiak erakutsiko ditugu, baita Elkarte-Sarearekin lotutako gertakari aipagarrienak ere.

Azkenik, Euskal Gorrak ibili badabil atalean, parte hartu dugun batzar eta ekitaldien zerrenda ikusiko duzue, begi-kolpe batez hiruhileko osoan zehar gauzatutako ekintzen laburpena izan dezazuen.

Aldizkaria hiru hilean behin argitaratuko dugun arren, ez dugu azken sei hileotan burututako lan oparoa ahazterik nahi izan. Beraz, lehenengo ale hau Euskal Gorrakek 2014ko urtarriletik ekainera bitarteko seihilekoan gauzatutako jardueren berri ematera dator.

Aldizkariaz gozatuko duzuelakoan.

Agur.



EG eta Euskadiko Gazteen Kontseiluaren arteko bilera.

Urtarrilaren 10ean Euskadiko Gazteen Kontseiluko (EGK) eta Euskal Gorrakeko Gazte Gorren Batzordeko kideak Federazioaren egoitzan batu ziren. Argazkian, ezkerretik eskuinera: Leticia Ariznabarreta, eta Ainhoa Ruiz de Angulo GGB-EGko kideak, Itsaso Andueza, EGKko Presidentea eta Cristina Campo, GGB-EGko arduraduna.

Bilera Bizegor elkartearekin eta horren aurkezpena Presidenteen Bilkuraren aurrean.

Urtarrilaren 18an Euskal Gorrakeko Zuzendaritza Batzordeak antolatutako bileran Bizegor elkarte berriaren Zuzendaritza-taldea izan zen gonbidatu gisa. Urtarrilaren 19an, EGeko 2014ko lehenengo Presidenteen Bilkuran Bizegor elkarteak bere burua ofizialki aurkeztu zuen.



Bilera Iñigo Pombo eta Lide Amilibiarekin.

Álvaro Ortega eta Ritxar Pérez, EG Presidente eta Diruzaina hurrenez hurren, Gizarte Politiken Sailburuordearekin eta Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Zuzendariarekin bildu ziren.

Euskadiko Gazte Gorren Foroa.

Otsailaren 8an Euskal Gorrakeko Gazteen Batzordeak Bilbon Euskadiko Gazte Gorren I Foroa antolatu zuen. Lehenengo topaketa horretan Martín Luis Becerrak –CJS-CNSE-ko presidentea- eta Itsaso Anduezak –Gazteen Euskal Kontseiluko (EGK)- presidentea parte hartu zuten.



Bilera Patxi Lópezekin.

EGko Zuzendaritza Batzordeko Presidente eta Idazkaria Patxi Lópezekin bildu ziren elkarte-sarearen antolamendua zein Euskadiko persona gorren beharrianak ezagutzera emateko.

EG-APSG hitzarmena.

EG eta GPGEko Zuzendaritza Batzordeek Zeinu Hizkuntzako Interpreteen Euskal Zerbitzua eskaintzeko espazio baten lagapenerako hitzarmena sinatu zuten.

Martxoa



Bilera Bizkaiko PParekin.

EG Bizkaiko PPko idazkari nagusi eta euskal legebiltzarkidea den Nerea Llanosekin, nahiz Eduardo Andrés eta Carmen Carrón batzarkideekin elkartu zen, persona gorren kolektiboko elkarteetako batzuek Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldiei buruz hitz egiteko.

Bilera PSE-EErekin.

EG PSE-EEko legebiltzarkide den Txaro Sarasúarekin, Carmen Díaz eta Yolanda Díezekin, Erandioko eta Bilboko Udaleko zinegotziak hurrenez-hurren, bildu zen.



CJS-CNSEren 25. Urteurrena.

EGko Gazteen Batzordeak CNSEko CJSk Madrilen apirilaren 5ean ospatutako 25. Urteurren arrakastatsuan parte hartu zuen.

Bilera EG, FEVAPAS, ARANSKI eta Gainditzenen artean.

EG Federazioa FEVAPAS, ARANSKI eta Gainditzenekin elkartu zen Tolosan ospatuko den Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna batera antolatzeko.



Bizegor EGeko kide egitea.

Apirilaren 26an Euskal Gorrakek Presidenteen 2014ko II Bilkura Basauriko Pertsona Gorren Elkartearen -Basauriko Gorrak- egoitzan. Jarraian egin zuten Ez-ohiko Biltzarrean aho batez onartu zuten Bizegor Elkarte berria (Bilboko Pertsona Gorren eta Zeinu Hizkuntzako Hiztunen Elkarte) EGeko kide egitea.

Bilera bietan Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteko (GPGE) Zuzendaritza Batzordeko kideak gonbidatu gisa izan ziren.



Bilera EH Bildurekin Eusko Legebiltzarrean.

Euskal Gorrakeko Benjamín Conde eta Álvaro Ortega eta Arabako Gorrakeko Jokin Freire eta Enrique Castro, EH Bilduko Eva Blancorekin elkartu ziren Eusko Legebiltzarreko Egoitzan.

Bilera EJko Hezkuntza Sailarekin.

Álvaro Ortega (EGko Presidentea) Hezkuntza Saileko zuzendari nahiz hainbat teknikorekin batzartu zen, Bilbon izango den 2015eko Europako Mintegian EJK laguntzaile gisa parte hartu dezan eskatzeko asmoz.



Bilera GFAko Ogasuneko Ahaldunarekin.

Álvaro Ortega, EGko Presidentea, eta Miren Segovia –Ogasun Saileko funtzionario den pertsona gorra-Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko Ahaldun Helena Francorekin eta Isidro Esnaolarekin –Zerbitzuetako eta Zerga Heziketako Zuzendaria-, bildu ziren Donostian, Gipuzkoako Herri Administrazioetako zerbitzuak persona gorrentzat irigarriak izan daitezzen kontutan hartu beharreko beharrez hitz egiteko.

CNSEren Biltzar Nagusia.

EGek CNSEk Madrilan egin zuen Biltzar Nagusian parte hartu zuen. Beste gaiak tarteko, CNSEko Presidentea esleitzeko bozketa egin zuten eta Concha Díez irten zen garaile, kargua betetzeko berriz hautatu baitzuten.



EGko Ohiko Biltzar Nagusia.

Ekainaren 14an EGren Ohiko Biltzar Nagusia izan zen Vitoria-Gasteizen, kide diren elkarte guztiek parte hartu zutela: Basauriko Gorra, Arabako Gorra, Gainditzen eta Bizegor. EGek urteko ikuskaritza-txostena eta kontuen zehaztasunak aurkeztu eta aho batez onartu ziren. Azpimarratzekoak, EGko Ohorezko Presidente Fernando Pascualek bertaratutakoei luzatutako hitzak.

Zeinu Hizkuntza Espainolen Eguna.

Ekainaren 14a Zeinu Hizkuntza Espainolen Egun Nazionaltzat ezarri zuten. EGek berria pozarren hartu zuen. Kasualitatez, egun horretan bertan Federazioaren Biltzar Nagusia izan zen.




Arartekoaren 25. Urteurrena Eusko Legebiltzarrean.

Ekainaren 20an EGko Zuzendaritza Batzordeko hainbat kide Arartekoaren 25. Urteurrena ospatzeko Eusko Legebiltzarrean antolatu zen ekitaldian izan ziren.



Gazte Gorren II Topaketa Barrian.

Ekainaren 20tik 22rako asteburuan, EGko GGBak Euskadiko Gazte Gorren II Topaketa egin zuen Barrian (Araba). Álvaro Ortegak eta Ritxar Pérezek hartu zuten topaketa aurkeztearen ardura, Federazioaren presidentea eta diruzaina hurrenez hurren.



EUSKAL GORRAK
Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa

k/ Hurtado Amézaga 27 – 6. pisua
48008 Bilbo
Tel.: 944 765 052 / 637 861 920
Emaila: euskalgorrak@gmail.com

Euskal Gorra*k* ibili badabil!

Urtarrila

- Urtarrilak 10** EG eta Euskadiko Gazteen Kontseiluaren arteko bilera.
- Urtarrilak 16** Bilera Joseba Gezuragarekin, EH Bilduko bozeramailea Bizkaiko BBNNetan.
- Urtarrilak 18** EG eta Bizegorreko ZBen arteko bilera Bilbon.
- Urtarrilak 19** Elkarte berriaren aurkezpena Vitoria-Gasteizeko Presidenteen Bilkuran.
- Urtarrilak 29** Eusko Jaurlaritzak antolatutako Onura Publikoaren gaineko Jardunaldietan parte hartu.
- Urtarrilak 29** Bilera Iñigo Pombo eta Lide Amilibiarekin, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordea eta Gizarte Zerbitzu, Enplegu eta Gizarte Politiketako Zuzendaria hurrenez hurren.

Otsaila

- Otsailak 8** Euskadiko Gazte Gorren I Foroa.
- Otsailak 18** Bilera Sergio Murilloarekin, BFAko Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Zuzendari Nagusia.
- Otsailak 18** Bilera Euskal Gorra*k* eta Zentzumen Guztiak erakundeetako Zuzendaritza Batzordeen artean, entzumen ezgaitasuna duten pertsonen beharrezan inguruan hitz egiteko.
- Otsailak 25** Bilera Patxi Lópezekin.
- Otsailak 28** EG eta GPGEren arteko hitzarmena ZHIZ kokatzeko espazio baten lagapenerako.

Martxoa

- Martxoak 18** Bilera Bizkaiko PPrekin.
- Martxoak 19** Bilera PSE-EErekin.
- Martxoak 19** Bilera EAJko Josune Albizua y Amaia Arregi legebiltzarkideekin.

Apirila

- Apirilak 5** CJS-CNSEren 25. Urteurrenaren ospakizuna.
- Apirilak 8** Bilera FEVAPAS, ARANSGI eta Gainditzenekin Tolosan.
- Apirilak 15** Bilera EDSUko batzordekide Pere Cantenysekin, Bilbon izango den 2015eko Europako Mintegia antolatzeko. Aitor Bedialaunetak (GGB-EGko Presidenteordea) eta Álvaro Ortegak (EGko Presidentea) parte hartu zuten.
- Apirilak 26** Bizegor EGeko kide egin zen.
- Apirilak 30** Bilera EH Bildurekin Eusko Legebiltzarrean.

Maiatza

- Maiatzak 21** Bilera Lakuan EJko Hezkuntza Sailarekin.
- Maiatzak 22** Bilera Donostian GFAko Ogasuneko Ahaldunarekin.
- Maiatzak 30-31** CNSEren Biltzar Nagusia Madrilen.
- Maiatzak 31 - Ekainak 1** CNSEren VI Kongresua Madrilen.

Ekaina

- Ekainak 13** FCNSEren Patronatuaren bilera Madrilen.
- Ekainak 14** EGko Ohiko Biltzar Nagusia. Zeinu Hizkuntza Espainolen Eguna
- Ekainak 20** Arartekoaren 25. Urteurrena Eusko Legebiltzarrean.
- Ekainak 20-22** Gazte Gorren II Topaketa Barrian.